



HERRI BATZARRA ITSASON 2021ko azaroaren 13an, larunbata, 18:30etan

Itsasoar guztioi, adeitasunez,

2021eko azaroaren 13an Itsasoko Ganbara Aretoan burututako Herri Batzarraren akta doakizue segidan:

1.- Aurreikusitako inbertsioen garapen egoera eta lotutako diru-laguntzak. Lehen atal hau Itsaso 2030 Plan Estrategikoaren ildoen garapenarekin uztartuz azaldu da. Hona hemen ildo nagusiak eta bakoitzaren baitan azken sehilabetean gauzatutako ekimenak. Zein diru-laguntzei esker garatu diren 2. puntuak jasotzen da.

1.1. Herri kohesioan sakondu eta hazkunde orekatua lortzeko hirigintza eta azpiegitura politikak:

- Landa Bideen konponketak : Mendeungo bidean, Errebuelta-Eztala bidean eta Atin-erdikoan
- Mandubiko elektrifikazioa
- Oria kalean babesak
- Alegiko kanal zaharreko pareta konpontzea Miranda parean
- San Lorentzon arketak
- Ostatuko erretegia (kristalezko itxidura)

1.2. Tokikotasunean oinarritutako eredu ekonomikoa eta enplegua sustatzea:

- Herriko produktuen proiektuaren jarraipena: Dendari begira ekipamendua eskuratzen hastea
- Europako funtsek denda ezartzeko ematen duten aukera: Alegiako Birziklagunea egokitzeko aukera
- Ondare arkeologikoa balioan jartzea: Mandubizelaiko trikuharriaren difusioa. 3Dn mugikorraren bidez azpian dagoena ikusteko irudikapena EducaReality enpresa ari da egiten, Joxean Mujika arkeologoaren dokumentazioarekin eta Gordailun jasota dagoen materialaren argazkiak baliatuta. Panelak ere jarriko dira web-era lotuta.

1.3. Herritarrei zuzenduriko zerbitzu publikoen garrantzia areagotu eta kalitatea hobetzea:

- Ganbarako co-working espazioaren hornitzea: Azaroan hornitua: premiazkoak ikusten diren altzariak erosi dira: bulegoko mahai, aulki eta armairuak, bionboak,...
- Liburutegirako apalategiak, harrerako sofa, silloiak eta mahaitxoak, irakurketa eta tertulien gunea. Ikasteko gunea. Bileretarako, kristalezko itxidura. Fotokopiagailua, pantaila. Jangelako gunean, mikrouhina, kafetera, ura berotzekoa. Sarrera nagusirako sarraila digitala.
- Hiru herritarrek bulegoak erabiltzeko eskaera egin badute ere, deialdi publikoa egingo da eta urtarrilean martxan jarriko da.

1.4. Gobernantza parte-hartzaile eta irekia garatzea:

- Eskolaratze irizpidea landu da Ezkio eta Itsaso mailan: Beasaingo institutua izango da erreferentziazko zentroa.
- Auzo udalari buruzko parte-hartze prozesua datorren urtean abiaraziko da.

1.5. Herritarren beharrei begira egindako mugikortasun eredu egituratzea:

- San Lorentzotik Ezkiorako oinezko lotura berdea: bidea egokitu, langak, landaketak, iturria (Foru Aldundiak lizitatu eta finantzatzen duen inguru degradatuen deialdian parte-hartu baitugu)
- Bide gorria Uribartik Zozabarrora (portzentaia altu bat dirulaguntza bidez finantzatuko da)

1.6. Iraunkortasuna abiapuntu eta jomuga duten proiektuen gauzatzea:

- Plaka fotovoltaikoak martxan jartzea, Udal Areto eta Ostaturako
- Ondare naturala berreskuratzeko egitasmoa 3. urtez aldaketa klimatikoari aurre egiteko EJaurlaritzaren dirulaguntzei esker: Alegiako txatarrerria, Kizkitza eta herri lurretan landaketak egin, landare inbaditzaileak kendu, errekan traba naturalak jarri eta Kizkitzan haziak erein.
- Led-ak jartzeko proiektua. Urtarrilean auditoritza egin ondoren (diruz lagunduta) aurkeztuko da deialdietara aktuazioak egiteko.

2.- 2021eko Udal aurrekontuen egoera

2020ean Itsasoko Udalak zeukan gerakina: 408.000 (horietatik 288.000 euro konprometituak Alegiko bulebarizazio eta Itsasoko Areto Balioanitzerako). Gerakin orokorra: 120.000 euro (aurrezkia)

2021eko hasierako aurrekontua: 211.000 euro (sarrera arruntek finantzatuta) + 66.000 euro (inbertsioetarako diru-laguntzetatik): 277.000 euro

2021eko urria hasierako egoera:

-Sarrerak: 223.000€ gaur egun (eta aurreikuspena aurrekontuko 277.000€ gainditzea da: Foru fondoa +13.000€ eta lortu diren diru-laguntza berriak)

-Gastuak: urrian 172.000€ goaz eta aurreikuspena 230.000€ inguru (urtean zehar zehaztutako inbertsio berriak kontuan izan gabe)

2021eko aurreikusitako emaitza (urte hasierako aurrekontuarekin konparatuz): +50.000

Zergatiak: batetik sarrera gehiago eta bestetik hainbat gastu ez dira egin COVIDagatik (herriko festak etab.)

Emaitza positibo honen bitartez eta 2021ean zehar eskatu eta jasotako diru-laguntza berriekin, 2021 urtean zehar inbertsio berriak finantzatu ahal izan dira (hasierako aurrekontuan ez zeudenak jasota):

Areto balioanitza ekipatu Coworking eta beste erabileretarako eta Ostatuko erretegia ixteko.

Mandubi gaineko elektrifikazioa hobetzeko.

Herriko produktuen sustapenerako 3. fasean denda hornitzen hasteko.

Mandubizelaiko trikuharriaren dibulgazioa egiteko.

Abenduko antzerkirako "Zoaz bake santuan".

Konpostera berriak jartzeko Itsaso eta Alegian (urte bukaerarako aurreikusita).

Eta 2022rako Fondo foralaren hobekuntza espero da (+13.000) eta auzo-alkatetza lortuz gero, diru iturri berrietara zabalduko ginateke.

3.- Auzo Udalaren gaiarekin Batzar Nagusietan egindako bidea

-Uztailean bilerak EAJ-PNV eta EH-BILDU-ko ordezkariekin

-Urriaren 13an 2003ko Foru Arauaren aldaketa puntualak ez ziren onartu, araua sakonki aztertu behar zela argudiatuz.

-Urriaren 28an Batzar Nagusitako alderdi guztiek, 2003ko Foru Arauaren berrikuspenerako ponentzia osatzeko eskaera, aho batez onartu dute eta bertan parte-hartzeko gonbidapena jaso dugu. Hiru hilabeteko epea aurreikusten da gutxienez.

4.- Urte bukaera bitarteko kultur agenda

-Jubilatuentzat loteak. Eguna udaberrian edo egoera hobetzean ospatuko da.

-Zinea igandetan, azaroaren 21ean eta abenduan 5ean, 18:30etan

-Azaroaren 25an, indarkeria matxistaren kontrako ekitaldia

-Hariztizabalgo pasta tailerra: abenduaren 4ean, 16:00-19:00

-Antzerkia Alegian, abenduaren 11an, 18:30etan, "Zoaz pake santuan"

-Gabonetako azoka, herriko produktuekin afaria: abenduaren 18an

-Herriko zubi historikoen azterlanaren aurkezpena: abenduaren 18an

-Tertulia literarioa, abenduaren 29an: Amets Arzallus-en "Miñan"

5.- 2022rako proposamenak

-Mandubizelaiko proiektua partekatzea

-Autokontsumorako energia fotovoltaikoei buruzko prestakuntza jasotzea

-Dendaren proiektua aztertu eta bideratzen hastea, beste esperientzia batzuk ere ezagutzuz

-Alegiako txatarrerria izandako lekua txukuntzea (aparejadoreak proiektua jada landuta du)

-Auzo udalari buruzko parte-hartze prozesua burutzea

-Alegia auzoko proiektu globalerako proposamenak lantzea

6.- Norberak lekarkeena

-Zentral pareko autobus geltokiari argia bermatzea

-Alegiako auzokonpostaren ordezkari organikoaren aukera aztertzea

-Kizkitzarako antenara doan bideari zangak atera eta konpontzea

Adeitasunez,

Itsasoko Batzordea

Itsason, 2021eko azaroaren 17a